ARI euskal atzizkiaren azterketa morfologikoa

MIRARI SAIZAR ZINKUNEGI*

1. SARRERA

Datozen lerroetan eta lantxo honek iraungo duen bitartean, ARI euskal atzizkiaren inguruan arituko naiz eta eratorpen atzizki honen sailkapen eta azterketa morfologiko bat xahutzen ahaleginduko naiz. Eginkizun horretan, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia* erabili ditut datu- eta adibide- iturri modura, ARI atzizkia daramaten hitzen korpusa osatu eta zerrendatu ahal izateko. Ondoren, atzizkiaren azterketa morfologikoari ekin diot, eta horretarako, lan eta azterketa tresna eta eredutzat, X. Artiagoitiaren (1995) -*garri* atzizkiari buruzko ikerketa xehea baliatu dut bereziki, eta neurri apalago batean bada ere, baita B. Oyharçabalek (1996) Materreren *Dotrina Christiana*-ko hitz eratorriei buruz eginiko artikulua ere.

Nire lana era txukun eta egituratu batean hasi eta amaitzearren, lehenik eta behin, orain artean ARI atzizkiaren inguruan zer esan izan den azalduko dut labur antzean. Ondoren, ARI atzizkiak balio bat baino gehiago dituela onartuz, balio bakoitza deskribatzen eta, adibideen bitartez, balio bata bestearengandik bereizten ahaleginduko naiz. Jarraian, atzizki honengan berezkoak diren alternantzia fonologikoen (*–ari, –kari, –lari, –tari, –dari*) eta hauen berezitasunen gainean arituko naiz. Eta amaitzeko, nire saialdiaren muina den atalari helduko diot: ARI atzizkiaren balio bakoitzak zein kategoriatako hitzak sortzen eta oinarritzat hartzen dituen aztertuko dut. Azken kasu honetan, oinarrian hartzen dituen hitzen kategoriari dagokionez, alegia, banaketarako erabili ditudan irizpideen berri ere emango dut eta atzizkiaren jokabide morfologikoaren inguruan ebatzi ditudan ondorio orokorrak biltzen ere ahaleginduko naiz.

Honenbestez bada, eta nire betegintzarrearen nondik-norakoen berri eman eta gero, ondu dudanari lotuko natzaio bete-betean.

* "Sancho el Sabio Fundazioa" VI. Unibertsitate mailako ikerketa Lehiaketaren irabazlea (2003).

2. ORAIN ARTEAN ARI ATZIZKIARI BURUZ ESAN IZAN DENA

L. Villasantek, *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974) liburuan, ARI atzizkiak hiru balio dituela adierazten du. ARI-ren balio bakoitza eratorriko duen hitzaren esanahiaren arabera bereizten du eta balio bakoitzak jokabide morfologiko ezberdina duela erakusten digu, hitzez hitz halakorik aitortzera heltzen ez bada ere.

Lehenengoak (aurrerantzean ARI_1 ikurraren bitartez adieraziko dudana), 'lanbidea edota zaletasuna' esanahia duten Izenak eta Adjektiboak sortzen dituela dio, eta oinarrian soilik Izenak hartzen dituela azaltzen du. Horretan bat dator R. M. Azkuek bere *Morfologia Vasca* (1925) liburuan dioenarekin. B. Oyharçabal-ek (1996), aldiz, ARI_1-ek oinarrian Izenak eta Aditzak ere, har ditzakeela dio. Villasantek, besteak beste, *arnegari, dantzari, gobernari, ihiztari, pilotari* bezalako adibideak eskaintzen ditu eta atzizki honek aldaera fonologiko guztiak hartzen dituela ikusten du, gainera: *–ari, –kari, –lari, –tari* eta *–dari*.

Atzizki honen (ARI_1-ren) jatorriaz eztabaida franko izan dela ere aitortzen digu Villasantek. Hala nola, Schuchardtek eta L. M. Mujikak *–ari* atzizkiaren sorrera *–arius* atzizki latindarrarekin lotzen dute (*ferroviarius, sagittarius* etab.) eta beronen aldaeratzat hartzen. Azkuek, aldiz, sutsuki kritikatzen ditu iritzi horren aldekoak direnak eta bera atzizkiaren jatorri euskaldunaren alde agertzen da tinko. Azkenik, K. Mitxelenak erdibideko jarrera baten alde egiten duela argitzen du Villasantek: beronen arabera, *–ari* atzizkia euskararena litzateke jatorrian; gero, ordea, *–arius* atzizki latindarraren sarrerak eta hedatzeak, jatorrizko atzizkiaren erabilera bizkortuko eta areagotuko zuela argudiatzen du.

Aipatzekoa da Villasantek ARI_1 atzizkiaren erabilerak azken aldian sortu duen 'nahasmena'-ren berri eman nahi izatea. Izan ere, atzizki honek, ogibide berri zenbait izendatzeko erabiltzen hasi denean, oinarri gisa Aditzak hartu dituela azaltzen digu Villasantek, eta hori, nolabait ere, ARI_1 atzizkiaren berezko jokamoldearen aurkako joera izango litzatekeela dio. Hartara, *itzulari, idazlari, aurkeztari* eta *pentsala-ri* bezalako adibideak gaizki eratuak, okerrak direla uste du, funtsean hitz eratorri hauen oinarrian Aditz bat legokeelako.

Azkue ere, neurri batean konturatu da jokamolde bitxi horretaz, baina bestelako hipotesi bat proposatzen du: lekeitiarrak, ARI-k *–le* eta *–tzaile* atzizkien esparrua jan edo bereganatu duelako susmoa agertzen du, eta horrela ongi ateratzen zaizkio kontuak, *–le* eta *–tzai-le* atzizkiek oinarrian nagusiki Aditzak hartzen dituztela ikusten baitu. Hartara, erraz azal ditzake ondorengo adibide hauek erakusten dituzten alternantziak:

(1) igarlari ~ igarle
ekarlari ~ ekarle
ikaslari ~ ikasle
ikuslari ~ ikusle
irakurlari ~ irakurle

M. Azkaratek (1992), Larramendiren hitz-eraketari buruz egiten duen azterketan, bestalde, andoaindarrak ARI_1 atzizkiaren 'benetako' erabileraren kontzientzia falta duela edo agertu nahi digu. Honatx, bere hitzetan, artikuluan dakarrena:

> "3.1. *-ari, -le, -tzaile, -gile* [...] Bere gramatikan (1729) egiten duen azalpenari jarraiki, ez da harritzekoa hiru atzizkiok nahasian aurkitzea askotan aditzari erantsirik 'egilea' adierazteko [...] Izenari eransten zaizkion *-ari, -gile* eta aditzari eransten zaizkion *-le, -tzaile* atzizkien arteko bereizketarik ez dugu, beraz, askotan." (M. Azkarate (1992), § 3.1., 216 or.)

Azkaratek, Larramendik bere adibideetan ARI_1 atzizkia Aditzei erantsirik erabiltzea bere sistematikotasun faltari leporatu beharra du, aurrez *–ari* eta *–gile* atzizkiak Izenei eta *–le* eta *–tzaile* atzizkiak Aditzei lotzearen araua jakintzat eta ziurtzat emana duelako. Horrek, hein handi batean, bere azalpena mugatu egiten du eta ez dio Larramendiren nahasmenaz haratagoko proposamen edo aukera batzuetarako biderik zabaltzen uzten. Horretaz gain, Azkaratek ez ditu ARI atzizkiaren balio ezberdinak bereizten, eta lan honen azken ondorioek erakutsi nahi luketeen eran, ez da dudarik, neke hori hartzea bere azalpenak aberasteko eta zehatzago egiteko baliagarri litzaioke.

Bigarren ARI bat ere proposatzen du Villasantek (aurrerantzean ARI_2 bezala irudikatuko duguna), hain zuzen ere, *–kari* aldaera nagusiki, baina, *–ari* aldaera ere, har dezakeena. Balio horrek 'materia edo objektu materiala'-ren esanahia duela adierazten digu. Atzizki honek, bestalde, Izen kategoriako hitzak eratorriko lituzke eta oinarrian Izenak eta Aditzak hartzeko gai dela esaten digu: *bazkari, edari, eskari, gurari* eta *eltzari* dira, besteak beste, Villasantek eskaintzen dituen adibideak.

Amaitzeko, erabilera murritzagoa duen hirugarren ARI (ARI_3) bati buruz mintzo zaigu Villasante. Kasu honetan, *–kari* aldaera fonologikoa soilik aurkitzen du. Maiztasuna adierazten duten aditzondoak eratortzen dituela dio, eta oinarrian, denbora-Izenak hartzen dituela. Balio murriztu eta ia agortu hau, batez ere edo soil-soilik, ekialdeko euskalkietan ezagutzen dela dio:

(2)	*Larunbatkari sendatzen zuen Jesusek*	(Haraneder-en testu batetik aterea)

Azkenik, Azkuek bere liburuan egiten duen laugarren ARI baten (ARI_4) proposamena ere aipatu nahi nuke. Garai zaharretan ARI hitz askea izango zela iradokitzen du, eta 'gela' esanahia izango zuela. Ondoren, beronen eratorpenezko erabilera ugaritu eta esanahi zaharra galdu ahala, 'lekua'-ren esanahi orokorragoa bereganatuko zuela dio. Azkueren arabera, egungo euskaran ARI_4 honen zentzua eta erabilera erabat agortua da, baina hainbat aztarna aurkitu ahalko genituzke zenbait adibidetan, bere zahartasunaren erakusgarri:

(3) *atari* 'atearen lekua'
elizari 'pórtico'
etxari 'vestíbulo'

Hurrengo atalari ekin aurretik, orain artean azaldutakoaren eskematxo bat prestatu dut, ARI atzizkiaren balio ezberdinen eta hauen berezitasun fonologiko, morfologiko eta semantikoen berri laburra eta zehatza izan dezagun:

1. ARI_1 = *-ari (-kari, -lari,-tari, -dari)* → lanbidea/ zaletasuna
   → eratorriaren kategoria: Izenak + Adjektiboak
   → oinarriaren kategoria: Izenak (Villasanteren eta Azkueren arabera), Izenak eta Aditzak (Oyharçabalen arabera)
2. ARI_2 = *-kari (-ari)* → materia/ objektu materiala
   → eratorriaren kategoria: Izenak
   → oinarriaren kategoria: Izenak edota Aditzak
3. ARI_3 = *-kari* → maiztasuna adierazten duten Aditzondoak eratzen dituena
   → soilik ekialdeko dialektoetan iraun du
   → eratorriaren kategoria: Aditzondoak
   → oinarriaren kategoria: denbora-Izenak
4. ARI_4 = *-ari* → 'gela' (Azkue)
   → herri hizkeretan galdua da
   → lehen, 'gela' esanahia zuelarik, *ari* hitz askea izango zen
   → gerora, atzizki bihurtu eta era horretan fosilduko zen, 'lekua' esanahi orokorragoaren jabe eginez

3.ARI-DUN HITZ ERATORRIEN BILDUMA ET A SAILKAPEN A

Autore ezberdinek aztergai dudan atzizkiaren inguruan esan izan dutena berrikusi ondoren, *Orotariko Euskal Hiztegira* eta Sarasolaren hiztegira jo dut, ARI atzizkia hartzen duten hitz guztiak batu asmoz. Zerrenda luzea bezain zabala atera zaidanez, eta anabasa horri atondu on bat ematearren, adiera guztiak Villasantek egindako banaketaren arabera sailkatu ditut, hau da, ARI_1, ARI_2 eta ARI_3 balioetan banatu ditut (ARI_4 balioa agortua dela onartu eta gero).

A) ARI_1 = lanbidea/ zaletasuna adierazten duena

ARI-dun hitz eratorrien zerrendako adibiderik gehienak sail honi dagozkio: erdiak baino gehiago, ARI_1 sailekoak dira. Oinarrian hartzen duen hitzaren kategoriari begira, berriz, argi ikusi dut ARI_1-ek, batez ere, Izenak hartzen dituela. Hori erakusten duten adibideak asko eta asko dira:

(4) *artolari, arraunlari, gerlari, irrintzilari, ezpatari, behorlari, pilotari, burdinkari, musikari, mezulari, nahaspilari, behikari, lagunkari, sukaldari...*

Baina, oinarrian Izenak ez ezik Aditzak hartzen dituzten adibideak ere aurkitu ditut, eta gainera, ez dut uste uste zena bezain gutxi direnik:

(3) *altxari, antolari, astindari, bilari, bildari, erabilari, esatari, eroslari, gaillendari, harlari, hezilari, ihardeslari, ikerlari, jaurtilari, moldalari, pentsalari, suntsilari, salatari ...*

Bestalde, beste sail handi bat osatu dut oinarriaren kategoria begibistakoa edo argia ez duten adibideekin, zalantzazkoekin, alegia. Oraingoz, aztertzeke utziko dut sail hori eta ARI_1-en oinarriaren kategoriaren banaketa-irizpideei ekiten diedanean landuko dut xeheago.

Atzizki honek eratortzen dituen hitzen kategoriari dagokionez, Villasantek azaldu bezala Izenak eta Adjektiboak sortzen dituela ohartu naiz:

(4) Izenak:

Hiltzaille eta harrikari gaiztoak (Harriet)
Errementariaren etxean, zotza burruntzi (esaera zaharra)

(5) Adjektiboak:

joanlari 'veloz', *irristari* 'resbaladizo', *etxetari* 'etxekoi'

B) ARI_2 = materia/ objektu materiala adierazten duena

Balio honetako hitz eratorriak laurogei bat inguru dira; adibide zerrenda osoari begira, oso gutxi, beraz. Bigarren motako ARI honek Izenak eta Aditzak hartzen ditu oinarritzat (Villasantek ere horrela dio). Baina, kopuruari erreparatuaz, Aditzak Izenak baino ere askozaz gehiagotan ageri direla ikusi dut, eta fraile arantzazuarrak bere liburuan, behinik behin, ez du desoreka horren berri ematen. Oinarrian ageri diren Izenen kopuru murritzari begira eta Aditzen nagusitasuna hain argia izanik, Izenaren gainean eraikitako adibide apurrak salbuespentzat hartzera ere ausartuko nintzatekeela uste dut:

(6) Izenak:

agintzari, atari, belartzari, eltzari, eskaintzari, arimakari, atsokari, burrundari, gabonkari, nahastekari, urrikari

(7) Aditzak:

agerkari, aterakari, aurkikari, begirakari, egoskari, erakus - kari, esakari, etorkari, ezagutkari, gertakari, gordekari, gozakari, ihardukari, ibilkari, igarkari, isurkari, oroikari, sorkari ...

Zalantzazko kasuak aurreragoko atal batean aztertuko ditut. ARI_2-k sortzen dituen hitzen kategoriari begira, aldiz, ez dago inolako zalantzarik: beti eta salbuespenik gabe, Izenak eratortzen ditu.

C) ARI_3 = maiztasuna adierazten duten aditzondoak sortzen dituena

Sail honetako hitzak oso gutxi dira: atzizki honek, denbora-Izenak hartzen ditu oinarrian eta Aditzondoak eratortzen. Hona hemen topatu ditudan adibide guztiak:

(8) *aldizkari, arratsaldekari, astegunkari, astekari, astelehenkari, denborakari, egunari, egunkari, hilabetekari, igandekari, larunbatkari, negukari, ostegunkari, ostiralkari, urtekari*

Beraz, adibide zerrenda arretaz arakatu eta aztertu ondoren, 2.atalaren amaieran prestatu dudan eskema, atzizki hauen jokabide morfologikoari begira, neurri batean aldatu behar nukeela ikusi dut. Batez ere, ARI_1-ek eta ARI_2-k jasango lukete aldaketarik gehien, eta hauen barruan, gogoetarik eta eztabaidagairik interesgarrienak eskainiko lituzkeen zatia oinarriaren kategoriaren nolakoarena litzateke:

1. ARI_1 = *-ari (-kari, -lari,-tari, -dari)* → lanbidea/ zaletasuna
   → eratorriaren kategoria: Izenak + Adjektiboak
   → oinarriaren kategoria: nagusiki Izenak, baina baita Aditzak ere
2. ARI_2 = *-kari (-ari)* → materia/ objektu materiala
   → eratorriaren kategoria: Izenak
   → oinarriaren kategoria: Aditzak, batez ere; Izenak, aldiz, oso gutxi

4.ALDAEREN MORFONOLOGIAZ

ARI atzizkiak balio eta adibide batzuetan eta besteetan aldaera ezberdinak agertzen ditu: batzuetan, *–ari* aurkituko dugu, bestetan *–kari,* sarri askotan *–lari*, eta inoiz *–tari* eta baita *–dari* ere. Eta hauxe da galdera: ba ote dago aldaera baten edota bestearen agerpena erabakitzen, baldintzatzen duen araurik? Edo bestela esanda, ARI atzizkiaren aldaeren arteko ezberdintasuna euskalkiaren araberakoa ote soilik, edo soilik fonologikoa, edota esanahi eta balio ezberdinak bereizteko balio dezakeen neurrian, morfonologikoa ere izan ote liteke?

Kasu batzuetan, zenbait alderen agerpena arau fonologiko zehatz batek goberna dezakeela dirudi. Esate baterako, *-dari* aldaera, oinarriaren amaieran kontsonante sudurkari bat egoteak erakarri ahal izan duela susma genezake zenbait adibidetan; edota, *-tari* aldaeraren agerpena, oinarriaren bukaerako kontsonante txistukari baten ondorioa dela ere, pentsa litekeen gauza da, adibide batzuek erakusten dutenaren arabera. Baina, ebazpen horiek aurrikusten dutena betetzen ez duten adibideak ere, ez dira falta, eta ez dira gutxi, gainera:

(10) *-ari → -dari / n_* *agindari, ehundari, lurrindari, zuzendari ...*
? leunkari, iruzkinlari, emanlari, esatari ...

(11) *-ari _ -tari / C_{txist} _* *ehiztari, erakustari, erostari, solastari ...*
? egoskari, erakuslari, eroslari, solaslari ...

Beste hainbatetan, oinarri beraren gainean eraikitako bi aldaera ezberdinek esanahi ezberdinak bereizteko ere balio dezaketela ikusi dut:

(12) a. bildari 'el que recoge'~ bilkari 'recolecta'
b. gordelari 'el que guarda' ~ gordekari 'secreto'
c. igarlari 'profeta'~ igarkari 'profecía'
d. ikaslari 'discípulo' ~ ikaskari 'doctrina'
e. maitalari 'amante' ~ maitari/maitakari 'amor'
f. sorlari 'creador' ~ sorkari 'creación'

Esanahiak bereizteko egitekoa, gainera, aldaera bakoitzera ongi moldatzen dela ohartzen gara: hau da, *-lari* aldaerak 'egiletasuna' adierazteko balioko luke, eta aldiz, *-kari* aldaerak 'materia edo objektua' adierazteko. Maila honetan, eta adibide hauen arteko txandakatzeari esker, aldaeren hautapenak egiteko morfonologikoa eskuratzen duela baiezta genezake.

Baina, (12)-ko adibide-sailean bildutakoen antzekoak oso gutxi dira hurrengo adibide-sailean bildu ditudanen aldean. Hauetan, ez dago aldaera bataren eta bestearen arteko esanahi ezberdintasunik; esanahia berbera dutelarik, aldaera bat baino gehiago jasotzen dira Orotariko Euskal Hiztegian:

(13) a. artezari ~ artezkari ~ artezlari ~ arteztari
b. gudari ~ gudalari ~ gudukari ~ gudulari ~ gudutari
c. joskari ~ joslari ~ jostari
d. harrapari ~ harrapakari ~ harrapalari ~ harrapatari
e. hezilari ~ hezitari ~ hezlari ~ heztari
f. marrumakari ~ marrumalari ~ marrumari
g. bidari ~ bidekari ~ bidelari ~ bidezkari

Honenbestez, eta aldaeren morfonologiari gagozkiolarik, ondokoa ebatzi dut: nahiz eta adibide zenbaitetan aldaera bakoitzaren agerpena nolabait erregulatuko edo baldintzatuko lukeen araurik antzeman daitekeen, ez ditu inola ere adibide guztiak besarkatzen, eta are gehiago, sistematikotasunik erakusten ez duten adibideak, araupean jar genitzakeenak baino askozaz ere gehiago dira. Hortaz, ARI atzizkiaren aldaeren azterketarako ikusmira berriak bilatu beharko dira: euskalki bakoitzaren hautapenak, atzizkiaren erabilera garaiz garai etab.

Azkenik, eta ARI atzizkiaren aldaera ezberdinen azterketarekin amaitzeko, aldaera bakoitzak ARI-ren balio bakoitzeko zenbat adibide eskuratzen dituen zehaztuko dut labur-labur, bakoitzaren agerpenmaiztasuna neurtuaz. ARI_1 sailean *–ari* eta *–lari* aldaerak dira ugarienak, *–kari* maila apalago batean agertzen da eta gutxien agertzen dire-

nak *–tari* eta *–dari* lirateke. ARI_2 sailean, aldiz, *–kari* aldaera da nagusi, eta *–ari, –lari* eta *–tari* urriago agertzen dira. Eta amaitzeko, ARI_3 sailean *–kari* da aldaera bakarra.

Jarraian, eta atal berriari hasiera eman aurretik nire ikergaia mugatzeko erabakia hartu dudala adierazi behar dut. Aztergai interesgarri eta emankorragoak iruditu zaizkidalakoan, batetik, eta lagundu nauten irakasle gomendio-emaileen aholkuari jarraituz, bestetik, gainerako alorrak alboratu eta ARI_1 eta ARI_2-ren azterketa morfologikoa sakontzea hobetsi dut. Halatan, ARI-ren balio bakoitzak eratortzen, eta batik bat, oinarritzat hartzen dituen hitzen kategoriaz arituko naiz.

5. ARI_2: ERATORRIAREN KATEGORIA DELA ETA

3. atalean aditzera eman dudan bezala, ARI_2-k Izen kategoriako hitzak eratortzen ditu salbuespenik gabe. Irizpide semantikoari jarraituz, hiru sailetan banatu ditut ARI_2-k sortzen dituen Izenak: bata, Izen abtraktuena; bestea, Izen konkretuena, eta hirugarren bat, lekua adierazten duten Izenena:

i. Izen abstraktuak:

lotsari 'vergüenza'	*maitakari* 'amor'
atseginkari 'alegría'	*egokari* 'deber'
bozkari 'alegría'	*garbikari* 'limpieza'
nahikari 'deseo'	*gertakari* 'suceso'
urrikari 'piedad'	*ihardukari* 'cuestión, problema'
gozakari 'alivio'	*luzakari* 'largura'
adilari 'entendimiento'	*pairakari* 'dolor'
hazkari 'alimento'	*emankari* 'don'

ii. Izen konkretuak:

janari 'alimento'	*edari* 'bebida'
eltzekari 'legumbre'	*nahastekari* 'mezcla'
bazkari 'comida'	*oroikari* 'recordatorio'
gabonkari 'aguinaldo'	*sineskari* 'objeto de fe'
gantzukari 'ungüento'	*errekari* 'producto caústico'

iii. Lekua adierazten duten Izenak

atari → atea dagoen lekua
hilari 'sepultura' → hildakoa dagoen lekua
ehortzari 'sepultura'
belartzari 'herbal, prado' → belartza dagoen lekua
jaiotari 'pueblo natal' → jaioterria, jaiotako lekua

Hirugarren sail hori proposatzeko arrazoi bat baino gehiago izan dut. Batetik, esanahiaren irizpideari begira, adibide apur horiek (eta horietxek dira aurkitu ditudan bakarrak) aurreko bi sailetako inon ezin nituelako kokatu, eta bestetik, ikuspegi diakronista bati bide emanez, Azkuek proposatutako ARI_4-rekin antzekotasun handiak topatu dizkiedalako. Bai Azkueren sailak eta baita multzo honek ere (iii.), 'lekutasuna' adierazten duten Izenak biltzen dituzte, eta lekeitiarrak irado-

ki bezala, ARI_4-ren antzinako emankortasunaren eta egungo agortasunaren ideiak adibide hauen nolakoak eta zenbatekoak erakusten duenarekin ongi egokitzen direla iruditzen zait.

6. ARI_2: OINARRIAREN KATEGORIA DELA ETA

3. atalean aurreratu dudan moduan, ARI_2-k Izenak eta Aditzak onar ditzake oinarrian. Izenak oso gutxi dira kopuruari begira, eta ez dute sailkatzeko aukera askorik uzten. Aipatzekoa da, bestalde, inoiz oinarrian dagoen Izena ez dela erro hutsa, eratorria baizik:

(14)	a.	atari	→	ate + –ari
	b.	eltzari	→	eltz(e) + –ari
	c.	gabonkari	→	gabon + –kari
	d.	ehortzari	→	ehortza + –ari
	e.	belartzari	→	$[\text{belar + tza}]_I$ + –ari
	f.	nahastekari	→	$[\text{nahas + te}]_I$ + –kari

Oinarrian Aditzak hartzen dituzten adibideak askozaz ere gehiago direla esana dugu. Zenbait kasutan, ez dago zalantzarako aukerarik, argi eta garbi, Aditzak topatzen ditugu ARI_2-ren aitzindari:

(15) adilari ~ aditu → 'entendimiento' oroikari ~ oroitu → 'recordatorio'
euslari ~ eutsi → 'apoyo' salkari ~ saldu → 'mercancía'
egokari ~ egoki → 'obligación' sineskari ~ sinetsi → 'objeto de fe'
etorkari ~ etorri → 'suceso' jaiotari ~ jaio → 'pueblo natal'
gertakari ~ gertatu → 'suceso' esakari ~ esan → 'dicho'
hazkari ~ hazi → 'alimento' eskari ~ eskatu → 'petición'
helkari ~ heldu → 'suceso' edari ~ edan → 'bebida'
ihardukari ~ iharduki → 'cuestión' ireskari ~ irentsi → 'sopa'
sendakari~sendatu → 'cura' erakuskari~erakutsi → 'muestra'
igarkari ~ igarri → 'profecía' opari ~ opatu → 'regalo'
ikaskari ~ ikasi → 'doctrina' emankari ~ eman → 'regalo'
ikuskari ~ ikusi → 'espectáculo' sorkari ~ sortu → 'creación'
izakari ~ izan → 'objeto o cosa' janari ~ jan → 'comida'

Jarraian, zalantzazko kasuen gain ipiniko dut arreta. Irizpide bat baino gehiago baliatuko dut oinarriaren kategoria nagusiki Izenaren edo Aditzaren alde jausten den ikusteko, eta emaitzek, nire susmoek esaten didaten bezala, Aditzaren aldeko epairik egin ote dezakedan edo ez erakus diezadatela:

(1) *Kopurua*

Adibide ziurrei begira, oinarrian Aditzak izan ditzaketenak askozaz ere gehiago dira Izenak izan ditzaketenak baino. Beraz, kopuruaren irizpideak Aditzaren aldera bultzatzen gaitu.

(2) ***Aldaketa morfonologikoak***

Zenbait adibidetan, oinarrian dagoen balizko Aditza *–(k)ari* atzizkiaren bitartez hitz eratorri bilakatu ondorengo forman, jatorrizko Aditzaren zenbait aztarna izan litezkeenak antzematen dira:

(16) a. min**d**ari → min $_{I}$ ~ min**d**u $_{A}$
b. goz**a**kari → gozo $_{adj}$ ~ goz**a**tu $_{A}$
c. mait**a**ri ~ mait**a**kari → maite $_{I\sim A}$ ~ mait**a**tu $_{A}$
d. luz**a**kari → luze $_{adj}$ ~ luz**a**tu $_{A}$
e. pair**a**kari → pairu $_{I}$ ~ pair**a**tu $_{A}$

(3) ***Izenen 'Adiztasuna'***

Izenburu korapilatsu honek iradoki nahi lukeen bezala, ARI_2 atzizkiaren oinarrian leudeekeen Izen guztiak Aditzak ere izan litezke, salbuespenik gabe. Uste dut esanguratsua dela datu hori:

(17) a. lotsari → lotsa ~ lotsatu
b. atseginkari → atsegin ~ atsegindu
c. bozkari → boz ~ boztu
d. nahikari → nahi ~ nahi izan
e. nekari → neke ~ nekatu
f. urrikari → urriki ~ urriki izan
g. izukari → izu ~ izutu
h. gurari → gura ~ gura izan
i. bazkari → bazka ~ bazkatu
j. gantzutu → gantzu ~ gantzutu
k. hilari → hil $_{I/A}$

(4) ***AditzTipologia***

Jarraian, oinarrian dauden Aditzak tipologikoki sailkatzen ahaleginduko naiz. Horretarako, sei sail edo tipo prestatu ditut: NOR-NORK tipoko Aditz arruntena; NOR-NORK tipoko Aditz psikologikoena; NOR/ NOR-NORK alternantzia erakusten duten Aditz arruntena, batetik, eta Aditz psikologikoena, bestetik; eta amaitzeko NOR eta NOR-NORI-NORK sailak. Aditz hauek adibide zehatzen testuinguruetan kokatu ditut eta ARI_2-k sortutako hitz eratorriak Aditzaren zein argumenturekin lot daitezkeen ikusten saiatu naiz.

A- <u>NOR-NORK tipoko Aditz arruntak</u>

a. Aztiak <u>etorkizun beltza</u> igarri/ iragarri digu
<egilea> <gaia> = igarkaria 'profecía'

b. Jainkoak <u>mundua</u> zazpi egunen buruan sortu zuen
<egilea> <gaia> = sorkaria 'creación'

c. Peruk Mirenen txupatxusa jan du
<egilea> <gaia> = janaria

d. pro=1pp Gaurko klasean Errusiako Iraultzaren historia ikasi dugu
<egilea> <gaia> = ikaskaria 'doctrina'

Adibide hauetan guztietan, eratorriak Aditzaren <gaia> edo barne-argumentuarekin egiten du bat.

B- NOR-NORK tipoko Aditz psikologikoak

a. Mirenek aurten Errealak Ligako Txapelketa irabaztea nahi du
<esperim> <gaia> = ? nahikari 'deseo'
bitarteko horrek eragingo du Mirenen nahikaria

b. pro=1pp Bihar Jazzaldiko emankizun bat ikusiko dugu
<esperim> <gaia> = ikuskari 'espectáculo'

c. Jokalariak epaileak erakutsitako txartel gorria pairatu beharko du
<kaltedun> <gaia> = ? pairakari 'sufrimiento'
bitarteko horrek eragingo du jokalariaren pairakaria

Aditz psikologikoen <gaia> argumentua ez zaio Aditz arrunten <gaia> argumentua bezain erraz egokitzen ARI_2-ren hitz eratorriari, honen esanahiari itzul-inguru bat eman beharra dago bien arteko lotura argiago ikusteko. Dena den, argi dago sail honetako Aditzek, aurrekoek bezala, bi argumentu hartzen dituztela eta bietako batekin lotzekotan <gaia> edo barne-argumentuarekin lotzen dela, eta inola ere ez <esperimentatzailea> edo kanpo-argumentuarekin.

C- NOR/ NOR-NORK alternantzia erakusten duten Aditz arruntak

a. Euria ari duenean aterkia hartzea egoki da
<gaia> = egokari 'obligación'

b. pro=2ps Ikasketak utziko badituzu ere, lan egitea egoki duzu
<egilea> <gaia> = egokari

c. Udaberrian egun-argiaren orduak asko luzatzen dira
<gaia> = ? luzakari 'largura'

d. Irakasleak lanak aurkezteko epea bi egunez luzatu du
<egilea> <gaia> = *luzakari <bitartek>

e. Peruren eztarriko mina berehala sendatu da
<gaia> = * sendakari 'cura'

f. Mirenek belauneko zauria sendagai berriarekin sendatu du
<egilea> <gaia> <bitartek> = sendakari 'cura'

Alternantzia erakusten duten Aditz arruntekin ez dago batere argi. Badirudi Aditz bakoitzak bere hobespenak dituela: esate baterako, *egokarie* badirudi argumentu bakarreko eta biko erabilera bietara egokitu daitekeela; aldiz, *luzakari* erabilera bietako edozein argumenturekin lotzeko ezintasunak bistakoak dira; eta azkenik, *sendakari*-k ez <gaia> argumentua, baizik eta, <bitartekoa> argumentua hobesten duela dirudi. Kontua da, hitz eratorri hauen oinarrietako Aditzek ez dutela tipologikoki antzekotasunik erakusten. Bakoitza bere bidetik dabilela dirudi.

D- NOR/ NOR-NORK alternantzia erakusten duten Aditz psikologikoak

a. Ane eskilaretako erorikoak lotsatu egin du
<esper> <bitartek> = * lotsari 'vergüenza'

b. Ane sarritan lotsatzen da
<esperim> = * lotsari

c. pro=1ps Filme horretako munstroak izutu egin nau
<esper> <eragilea> = * izukari 'temor'
eragile horrek eragin du nire izukaria

d. Peru ez da sekula izutzen
<esperim> = * izukari

e. Aitonak eguraldi-gizonaren iragarpenak ez ditu sinesten
<esperim> <gaia> = * sineskari 'objeto de fe'

f. Apaizek esandakoa berehala sinesten zen
<gaia> = * sineskari 'objeto de fe'

Aditz psikologikoen sailekо Aditzak argumenturen batekin lotzeko arazoak ere, bistakoak dira. Hitz eratorriaren esanahiarengatik edota sarritan tipo honetako Aditzek <gaia> argumentu argirik ez dutelako, ez da erraza arau argirik topatzea.

E- NOR aditzak

a. Peru bizikletaz etorri da → * etorkaria 'acontecimiento'
<gaia> # Peru bizikletaz etorri izana

b. Gasteizerako bidean istripu bat gertatu da
<gaia> = gertakaria

c. Paris Frantziako hiriburua da → * izakaria 'objeto, cosa'
* Paris Frantziako hiriburua izatearena

d. Miren Anbotoko mendian barrena ibili da
<egilea> <lekua> = ? ibilari 'recorrido'

e. Oteiza Orion jaio zen
<gaia> <lekua> = ? jaiotari 'pueblo natal'

Aditzak Nor argumentua daramanean ere, gauzak ez daude oso argi. Badirudi, *gertakari* Aditzaren argumentu bakarrari ongi egokitzen zaion bakarretako bat dela. Gainera, kontuan hartu beharko, sail honetako adibideen artetik egungo euskaran ohikoa eta sarri erabilia den bakarra bera dela, eta hori susmagarria litzateke. Gainerako eratorrien esanahiak asko urrundu dira Aditzaren argumentuak iragartzen duenetik. (d.) eta (e.) adibide bietan, badirudi hitz eratorriak ez Aditzaren argumentu bakar eta nagusiaren alde, baizik eta adjunktu edo osagarritzat jo genezakeen elementuaren alde egiten duela. Nola nahi ere, ez da adibide guztiak bilduko dituen araurik somatzen.

F- NOR-NORI-NORK Aditzak

a. Peruk Mireni txiste bat kontatu/ esan dio
<egilea> <helb> <gaia> = esakaria 'dicho, sentencia'

b. Elizak pobreei dirua eskatzen die
<egilea> <kalted> <gaia> = eskaria 'petición'

c. pro=1ps pro=2ps Zorionik beroenak opa dizkizut
<egilea> <helbur> <gaia> = oparia 'regalo'

d. Mirenek Joni liburu bat eman dio
<egilea> <helb> <gaia> = emankaria 'regalo, don'

e. Politikariek herritarrei gezurrak saltzen dizkie
<egilea> <helbur> <gaia> = salkaria 'mercancía'

Harrigarria bada ere, azken sail honetan bete-betean ateratzen zaizkit kontuak: hitz eratorriak oinarrian dagoen Aditzaren <gaia> argumentuari dei egiten dio, beti eta salbuespenik gabe.

Hortaz, azken ondorio modura ondokoa ebatzi dut:

1. Ezer sistematizatzeko aukerarik eskaintzen didaten sailak argumentu bi edo gehiago eskatzen dituzten Aditzenak izango lirateke, NOR-NORK Aditz arrunten eta psikologikoen eta NOR-NORI-NORK saileko Aditzenak, alegia.

2. Hauetan, ARI_2-ren gainean eraikitako hitz eratorria, beti eta sistematikoki, oinarrian dagoen Aditzaren <gaia> argumentuari, edo bestela esanda, barne-argumentuari, lotzen zaio.

3. Gainerako sailetan, ez da talde-izaerarik nabaritzen. Arrazoiak askotarioak izan daitezke: besteak beste, Izen eratorriaren abstraktutasunak Aditzaren argumentu-egituran lekurik ez edukitzea. Adibide gutxi batzuk gaurko euskaran fosilduak daudela dirudi: *gertakari* eta *sendakari* pare bat aipatzearren. Gainerakoak eta gehienak, ordea, oso bitxiak eta arraroak dira egungo euskal hiztunarentzat.

4. Ez dut uste, egungo egunean, ARI_2-ren erabilera emankorra denik. X. Artiagoitiaren (1995) artikuluan, *-garri* atzizkiaren emankortasuna neurtzeko erabiltzen diren adibideekin aproba egin dut eta nire ustea indartu besterik ez dela egiten iruditzen zait. B. Oyharçabal-

ek ere, iritzi berbera erakusten du bere artikuluan. Hitz berri hauek, gainera, ARI_1-ren zentzua ARI_2-rena baino lehenago eta aiseago hartzen dute, oker ez banaiz, eta horrek, ARI_1, ARI_2 ez bezala, emankorra dela erakutsiko luke, bidenabar:

(18) a. *boikotari* → * boikota, boikotasuna
boikota egiten duena, boikoteatzen duena

b. endredari → * endredua
endredatzen duena

7.ARI_1: OINARRIAREN KATEGORIA DELA ETA

ARI_1-ri ekin bezain laister, aurreratu behar dut beronen hitz eratorriaren kategoriari dagokionez, ez dudala 3. atalean esan dudanaz haratago ezer berririk esango, ez baitut uste ezer interesgarri eta emankorrik lortuko dudanik. Hortaz, eta beste gabe, eratorriaren oinarriari buruzko gogoetan murgilduko naiz.

Adibide asko eta askotan, ez da erraza oinarriaren kategoria zein den antzematea, sarritan esanahi bera duten eta kategoria ezberdinetako oinarriak erakusten dituzten adibide bikoteak edo taldeak aurkitzen baititut. Hona hemen batzuk:

(19) a. akuil-ari / akuilu-lari → akuilu ~ akuila-tu
b. antzerki-lari / antzez-lari → antzerki ~ antzez-tu
c. apostu-lari / aposta-lari → apostu ~ apostatu
d. neurri-lari / neur-kari → neurri ~ neurtu
e. prediku-lari / predik-ari → prediku ~ predikatu
f. saltolari / saltari → salto ~ saltatu
g. jokolari ~ jokulari / jokalari → joko ~ joku ~ jokatu
h. gorrotolari / gorrotari → gorroto ~ gorrotatu

Zalantzazko kasuak banaketarako irizpideen mendean jarri aurretik, gogorarazi nahi nuke ARI_1-ren oinarrian bai Izenak eta baita Aditzak ere topa genitzakeela, areago oraindik, kopuru osoari begira, oinarrian Izenak hartzen dituztenak Aditzak hartzen dituztenak baino askozaz ere gehiago direla ematen du:

(20) *bekatari, gezurlari, atximurlari, dardarari, gerlari, gatazkari, gogoetalari, intzirikari, isekari, keinulari, nahaspilari, oihulari, ostikolari, prometari, zurrungari, zaunkalari, erritari, ezpatari, gortelari, hizlari, koplari, perretxikulari, kalapitari, kirolari, segari, sukaldari, txalapartari, zientzialari ...*

Hortaz, eginahal honetan gauzak nabarmen zailtzen zaizkit. ARI_2-ren kasuan, Aditzak ziren gehiengo nagusia, Izen apurrak salbuespentzat hartzeraino, eta banaketa irizpideei ekin aurretik, emaitzak Aditzaren aldekoak izatea espero nuen. Oraingoan, ordea, adibideen zerrenda ikaragarri luzatzeaz gainera, Izenen kopurua azpimarratzekoa iruditzen zait, baina era berean, Aditz hutsak (eta inola ere ez Izen) izan litezkeen adibideak ez dira salbuespentzat hartzeko bezain eskasak:

(20) *altxari, antolari, asaldari, astindari, barreiari, begirari, bilari, bildari, erabilari, adirazlari, adoralari, aitorlari, eroslari, esatari, gailendari, erorkari, etorkari, bultzalari, ekarlari, entzunlari, ereinlari, hedari, higatari, gordelari, harlari, harrapakari, irekari, jazarrari, ibilari, igarlari, iker - lari, ikuslari, irakurlari, iraunlari, iraulari, irizlari, jardula - ri, jaurtilari, kenlari, madarikari, murgilari, pentsalari, sor - lari, suntsilari, salbari, zirikari, onestari ...*

Beraz, kasu honetan, kopuruaren irizpideak ez dit kategoria baten edo bestearen alde egiteko balio. Bestelako banaketa-irizpideak, sendoagoak beharko dutenak, bilatu eta baliatu beharko ditut.

1. Oinarrian dauden Izenen sailkapen semantikoa

Irizpideetako bat oinarrian ageri diren Izen hutsen sailkapen semantikoa izan liteke:

1. lehengaia + -ari = lanbidea
   adb
   ardolari, artolari, behikari, ikazlari, egurlari, arrautze - kari, eperlari, larrulari, perretxikolari ...
   ipuinlari, kondairari, bertsolari, olerkari, koplari, txis - telari ...

2. lan-tresna + -ari = lanbidea
   adb
   arraunlari, segalari, aizkolari, aitzurlari, laiari, pilota - ri etab.
   arrabitari, atabalari, danborrari, gitarrari, txalaparta - ri, trikitilari...

3. [__ + -keta] ekintza-izenak + -ari = lanbidea/ zaletasuna
   adb
   abarketari, atunketari, belarketari, berriketari, egurke - tari, elkarrizketari, idiketari, irinketari, izokinketari, salerosketari, trapuketari, zezenketari...

4. kaltea edo okerra eragile diren zaletasunen ugaritasuna
   adb
   araolari, biraolari, blasfemari, erdeinari, liskarlari, marmarlari, nahaspilari, iskanbilari, kalapitari, irrila - ri, isekari, iruzurlari, maldiziokari, gatazkari, errieta - ri...

5. zientzia edo jakintza-arlo batean aditu dena adierazteko
   adb
   geologilari, gramatikari, fisikari, matematikari, hiz - kuntzalari, filosofari, sintaxilari, zientzialari...

6. animalien orroe eta oihuak
adb
kurrunkari, marrakari, marrukari, korrokari, piokari, zaunkalari...

2.Aldaketa morfonologikoak

Zenbait adibidetan eratorpenak jardun ondoren, oinarriaren jatorriaren aztarnak aurki daitezke:

→ ADITZAren mesedetan, adibideak aurkitzea oso erraza da:

estimu ~ estim**a**tu	estim**a**lari	* estimulari
mezprezu ~ mezprez**a**tu	mezprez**a**lari	* mezprezulari
oso ~ os**a**tu	os**a**lari	* osolari
maixio ~ maixi**a**tu	maixi**a**lari	* maixiolari
bedeinku ~ bedeink**a**tu	bedeink**a**lari	* bedeinkulari
bataio ~ batai**a**tu	batai**a**lari	* bataiolari
inguru ~ inguratu	ingur**a**lari	* ingurulari
kolpe ~ kolpatu	kolp**a**lari	* kolpelari

→ IZENAren mesedetan daudenak, ez dira hain erraz aurkitzen:

atximur ~ atximurkatu	atximurlari	* atximurkalari
gezur ~ gezurtatu	gezurlari	* gezurtalari
otoitz ~ otoiztu	otoizlari	* otoiztari ~ otoiztalari
listu ~ listukatu	listulari	* listukalari

→ irizpide honek argitu ezin dituen adibideak, ordea, eta zalantzazkoak izaten jarraitzen dutenak, asko eta asko dira, batez ere, oinarria bokalez amaitzen bada, eta eratorriak *–ari* aldaera hartzen badu:

abusu ~abusatu	abusari
behaztopo ~ behaztopatu	behaztopari
lausengu ~ lausengatu	lausengari
erdeinu ~ erdeinatu	erdeinari
labore ~ laboratu	laborari
liskar ~ liskartu	liskarlari
garraio ~ garraiatu	garraiari
xuxurla ~ xuxurlatu	xuxurlari

3. *Eratorriaren balio semantikoa*

Villasantek ARI_1-ren esanahiaz lanbidea edo zaletasuna adieraz dezakeela dio, eta ez du ARI_1-ek oinarrian Aditzak hartzea ontzat jotzen. Azken aldian, Aditzaren gainean eraikitako zenbait hitz eratorri oker eratutzat dituela ere ikusi dugu: *itzulari, ikaslari, pentsalari ...* Azkuek, bere aldetik, nahasmen horren arrazoia *–ari*-k *–le* eta *–tzaile* atzizkien esparrua jan edo bereganatu izanean ikusten du, eta horrela arrazoitzen du *–ari* atzizkiaren oinarrian agertzen diren Aditzen agerpena.

Jo dezagun, bi ikerlari hauen intuizioak ez dabiltzala benetan atzizki honen inguruan gertatu denetik edo gertatzen ari denetik urrun. Eman dezagun, ARI_1-ak esanahi edo balio ezberdinak biltzen dituela bere baitan, elkarren oso antzeko direnak, baina zenbait ñabardura medio, bata bestearengandik bereiz daitezkeenak. Aproba egin dezagun, batetik, lanbidea/ zaletasuna balio semantikoak dituen mota bateko ARI_1 bat dugula, oinarrian Izenak eta Aditzak hartzen dituena, eta bestetik, egiletasunaren balioa hartzen duen bigarren ARI_1 bat dugula, oinarrian Aditzak hartuko lituzkeena, eta hein handi batean, Azkuek iragarritakoaren ildotik, *–le/–tzaile* atzizkiekin berdindu litekeena:

a. ARI_1 = lanbidea/ zaletasuna [oinarria $_{\text{Izena + Aditza}}$ + *-ari*]
b. ARI_1 = egiletasuna [oinarria $_{\text{Aditza}}$ + *-ari*]

Jarraian, saia gaitezen adibideak bi multzo horietan banatzen eta Orotariko Euskal Hiztegian agertzen diren zehaztasun semantikoetan arreta jartzen:

→ ARI_1 = lanbidea/ zaletasuna: oinarrian Izen argia dutenak

a. keinulari 'señero' keinu ~ * keinatu
b. erreportari 'reportero' erreportai ~ * erreportatu
c. zurrungari 'roncador' zurrunga ~ * zurrungatu
d. intzirikari 'qui pousse des plaintes' intziri ~ * intziritu, intzirikatu
e. bekatari 'pecador' bekatu ~ * bekatatu

→ ARI_1 = lanbidea/ zaletasuna: oinarriaren formari begira, zalantzak sortu arren, esanahiari begira, Izenaren alde egiten duten adibideak:

a. alogerari 'asalariado, obrero' alogera ~ alogeratu
b. kezkari 'preocupante, que causa preocupación' kezka ~ kezkatu
c. harremankari 'tratante, negociante' harreman ~ harremandu
d. errentari 'arrendatario' errenta ~ errentatu

→ ARI_1 = lanbidea/ zaletasuna: oinarriaren forma zalantzazkoa izan arren, esanahiaren arabera Aditzaren alde egiteko eskatzen diguten adibideak:

a. akuilulari ~ akuilari 'aguijoneador' akuilu ~akuilatu
* akuiluak egiten dituena
# akuilatzen aritzen dena

b. garraiolari ~ garraiari 'transportador' garraio ~ garraiatu
? garraioak egiten dituena
gauzak garraiatzen aritzen dena

c. galbahari 'cribador' galbahe ~ galbahetu
* galbaheak egiten dituena
# alea galbahetzen aritzen dena

d. gaztigari ‘castigador’ gaztigu ~ gaztigatu
? gaztiguak egiten dituena
jendea gaztigatzen aritzen dena

e. inprentari ‘impresor’ inprenta~inprentatu
* inprentak egiten dituena
# testuak inprentatzen (imprimatzen) dituena

f. mintzolari ~mintzalari ‘orador’ mintzo $_{I\sim A}$ ~ mintzatu
? mintzoak egiten dituena
jendaurrean mintzatzen aritzen dena

Jarraian, eta Azkueren aipuan oinarrituz, proposatu dugun ARI_1 = egiletasuna atzizkiaren izana froga dezaketen adibideak biltzen saiatuko naiz:

→ ARI_1 = egiletasuna: *-le /-tzaile* atzizkiekin berdindu daitezken eta oinarrian Aditz argiak erakusten dituzten hitz eratorriak:

a.	altxari	~	altxatu	~	altxatzaile
b.	antolari	~	antolatu	~	antolatzaile
c.	bilari	~	bilatu	~	bilatzaile
d.	bildari	~	bildu	~	biltzaile
e.	barreiari	~	barreiatu	~	barreiatzaile
f.	eroslari	~	erosi	~	erosle
g.	ekarlari	~	ekarri	~	ekartzaile
h.	ikuslari	~	ikusi	~	ikusle
i.	hondalari	~	hondatu	~	hondatzaile
j.	suntsilari	~	suntsitu	~	suntsitzaile

→ ARI_1 = egiletasuna: oinarriaren formari begira, Izena edo Aditza den zalantzazkoa izan daitekeen arren, esanahiari dagokionez, Aditzaren alde oldartzen diren adibideak, eta hortaz, *-le/-tzaile* atzizkidun forma baliokidea izan dezaketenak:

a.	abusari	abusu ~ abusatu	‘abusador’	abusatzaile
b.	aholkari	aholku ~ aholkatu	‘aconsejador’	aholkatzaile
c.	gorrotolari ~ gorrotari	gorroto ~ gorrotatu		gorrotatzaile
d.	galdelari	galde ~ galdetu	‘preguntador’	galdetzaile
e.	irabazlari	irabazi $_{I/A}$	‘ganador’	irabazle
f.	ordainlari	ordain ~ ordaindu	‘el que paga’	ordaintzaile
g.	zuzendari	zuzen ~ zuzendu	‘corrector, director’	zuzentzaile
h.	bortxari	bortxa ~ bortxatu	‘violador’	bortxatzaile
i.	gonbidalari	gonbita ~ gonbidatu	‘convidador’	gonbidatzaile
j.	lehiari	lehia~ lehiatu	‘competidor’	lehiatzaile

Egia da lanbidea/ zaletasuna eta egiletasuna balio semantikoak elkarrengandik oso hurbil daudela, eta sarritan, adibide berak bi balioak jaso ditzakeela. Baina, banaketa honek adibideen anabasa nolabait antolatzeko balio dezakeela iruditzen zait. Kontuan hartu behar da, bestalde, *-ari*-k *–le/-tzaile*-ren esparruak bereganatu baditu, eta egiletasuna adierazteko trebatu bada (eta nik uste, bada proposamen hori

egiazkotzat hartzeko beste adibide), *–le/-tzaile* atzizkien balio semantikoari eta jokabide morfologikoari begira, oinarrian Aditzak hartzea espero beharko litzatekeela, eta ez Izenak.

Dena den, eta salbuespenei bide emanez, aitortu beharra dut ez dudala adibide guztiak aipatutako kutxatxoetan sartzerik izan, neurri handi batean, hitz berberak bai lanbide/zaletasun balioak eta baita egiletasun balioa ere har ditzakeelako. Ez da erraza adibide hauen oinarriaren kategoria bistaratuko duen irizpiderik aurkitzea:

a. bidaiari	bidaia~bidaiatu bidaiatzaile	# bidaiak egiten dituena # bidaia-tzen/-tu duena
b. bisitari	bisita~bisitatu bisitatzaile	# bisitak egiten dituena # bisita-tzen/-tu duena
c. dantzari	dantza~dantza egin~dantzatu	# dantza egiten duena # dantza-tzen/-tu duena
d. ameslari	amets~amets egin~amestu	# amets egiten duena # ames-ten/-tu duena
e. borrokalari	borroka~borroka egin~borrokatu	# borroka egiten duena # borroka-tzen/-tu dena
f. deilari	dei~dei egin~deitu	# dei egiten duena # dei-tzen/-tu duena

Adibide hauetan bai Izenak eta baita Aditzak ere, aukera asko dute oinarri-gai izateko. Azpimarratzekoa da *bidaia, bisita, dantza, amets, borroka, dei* Izenen baitan ekintza edo jarduera bat uler daitekeela, edo bestela esanda, 'egile' den batek 'egiten'duenaren isla izan litezkeela. Hortaz, ARI_1 atzizkiak oinarrian legokeen ekintzazko Izenaren edota Aditzaren <egilea> eratorriko luke:

a. Mendizale elkarteak Alpeetarako bidaia antolatu du
<egilea> = bidaiariak <gaia>

b. Ikasleek gaur Guggenheim museoa bisitatuko dute
<egilea> = bisitariak <gaia>

c. Peruk biharko ezkontzan aurreskua dantzatuko du
<egilea> = dantzaria <gaia>

Aipatzekoa da, bestalde, zenbait adibideren oinarrian, Izenez eta Aditzez gain, Aditzondoak ere egon daitezkeela, nolabait esateko euskarak oraindik ere 'adiztu' ez dituen aldaerak edo lirateke:

a. lasterkari → * $lasterkatu_A$ → $lasterka_{Aond}$
b. maldiziokari → * maldiziokatu → maldizioka
c. mokokari → * mokokatu → mokoka
d. korrikari → * korrikatu → korrika
e. tinkitankari → * tinkitankatu → tinkitanka
f. harahonakari → * harahonkatu → harahonaka

4. ***Hitz berriak sortzeko gaitasunaemankortasuna***

Mailegu berri eta ez hain berriek, ARI_1-ek oinarrian Izenak eta, orain artean uste ez bezala, Aditzak ere hartzeko gai dela frogatzen dute:

a.	peleari	→	pelea ~ peleatu
b.	konbatari	→	konbate ~ konbatitu
c.	pertsekutari	→	pertsekuzio ~ pertsekut**a**tu
d.	kanbialari	→	kanbio ~ kanbi**a**tu
e.	bullari	→	bulla ~ * bullatu

Badirudi, gainera, mailegu berri hauek oinarritzat Aditzak hartzeko hautua egin dutela gehienetan.

5. ***Aditz tipologia***

Jarraian eta amaitzeko, ARI_1-en oinarrian ager daitezkeeen Aditzak tipologikoki sailkatzen ahaleginduko naiz. Horretarako, ARI_2-ren azterketarako prestatutako sei sailak erabiliko ditut. Hala, Aditz hauek adibide zehatzen testuinguruetan kokatu ditut eta ARI_1-ek sortutako hitz eratorriak Aditzaren zein argumenturekin lot daitezkeen ikusten saiatu naiz.

A- NOR-NORK tipoko Aditz arruntak

a. Euskara batzordeak batzarra antolatu du
<egilea> = antolaria <gaia>

b. Jonek, oparia jaso eta gero, Miren besarkatu du
<egilea> = besarkalaria <gaia>

c. Peruk gezurra esan duela aitortu du
<egilea> = aitorlaria <gaia>

d. Langileek Egunkariaren itxiera salatu dute
<egilea> = salatariak <gaia>

e. Mirenek bere kontakizunean Peru imitatu du
<egilea> = imitalaria <gaia>

Adibide hauetan, eratorriak Aditzaren <egilea> edo kanpo-argumentuarekin egiten du bat sistematikoki.

B- NOR-NORK tipoko Aditz psikologikoak

a. Peruk Txanogorritxuren ipuina sinetsi du
<esperim> = sineslaria <gaia>

b. Mirenek musika klasikoa gorrotatzen du
<esperim> = gorrotaria <gaia>

c. Gazteok sarritan pentsatzen dugu etorkizunaz
<esperim> = ? pentsalariak <gaia>

d. Aznarrek gerrari ekitea onena dela pentsatzen du (= uste)
<esperim> = ? pentsalaria <gaia>

e. Einsteinek asko pentsatzen zuen
<esperim> = pentsalaria

Sail honetako (a.) eta (b.) adibideek ere, hitz eratorria oinarrian dagoen Aditzaren <esperimentatzailea> edo kanpo-argumentuarekin lotzen dela erakusten dute. Hurrengo hiru perpausetan, ordea, 'pentsatu' Aditzaren erabilera ezberdinek eratorriarekin bat egiteko ez dutela erraztasun berbera argi geratzen da. Bitxia bada ere, *pentsalari* hitza soilik Aditzak argumentu bakarra eskatzen duenean izango litzateke posible.

C- NOR/ NOR-NORK alternantzia erakusten duten Aditz arruntak

a. Miren aulkitik altxatu da
<egilea> = * altxaria 'levantador'

b. Mirenek gaur goizean harria altxatu du
<egilea> = altxaria <gaia>

c. Azken urteotan futbol zelaia asko hondatu da
<gaia> = * hondalaria

d. Euri-jasek azken urteotan futbol zelaia asko hondatu dute
<eragilea> = hondalariak <gaia>

e. Eleberria poesia baino gehiago irakurtzen da
<gaia> = * irakurlaria

f. Ikasleek gaur egun eleberria poesia baino gehiago irakurtzen dute
<egilea> = irakurlariak <gaia>

Alternantzia erakusten duten adibide hauek, ARI_1-ak ongi joka dezan Aditzak gutxienez argumentu bi izan behar dituela erakusten digute. Horretaz gaian, (d.) perpausean ikusten dugun bezala, eratorriak ez du nahitaez <egile> argumentuarekin batu beharrik, <eragilea> theta-rolari lotuta ere, perpausa ona baita. Baldintza nagusiak, beraz, bi lirateke: bata, Aditzak argumentu bi edukitzea, eta bestea, errol thematikoa gora behera, ARI_1-ren eratorria oinarriko Aditzaren kanpo-argumentuari egokitzea.

D- NOR/ NOR-NORK alternantzia erakusten duten Aditz psikologikoak

a. Peru sarritan izutzen da
<esper> = * izukaria 'terrorífico'

b. Screem filmak asko izutu du Peru
<bitart> = ? izukaria <esperim> = * izukaria

c. Stephen Kingen eleberriek izua eragiten didate pro= 1ps
<eragilea> = ? izukariak <gaia> <esperim>

Kontutan hartzekoa da oinarrian NOR/ NOR-NORK alternantzia duten Aditz psikologikoak hartzen dituen ARI_1-ek bi kategoriatako hitzak erator ditzakeela.

(21) kezkari: 1. preocupante (Adj),2. el que se preocupa (I)
sentilari 1. sensitivo (Adj), 2. el que siente (I)
lotsari 'vergonzoso'
gurkari 'ceremonioso'
ezagutkari 'cognoscitivo'

Adjektiboak sortzen dituenean, zail da eratorria oinarriko Aditzaren argumenturen batekin lotzea (ikusi a., b. eta c. adibideak). Izenak eratortzen dituenean, berriz, Aditzaren kanpo-argumentuarekin lotuko litzatekeela iruditzen zait, eta ez beste ezerekin:

d. Mirenek batzuetan bihotza triste sentitzen du
<esper> = sentilaria <gaia>

e. Peru bere osasun faltak kezkatzen du
<esper> = kezkari <gaia>

E- NOR aditzak

a. Autoaren gurpilak higitu egiten dira
<gaia> = ? higikariak 'movedizos'

b. Kalean izotza egiten duenean irristatu egiten gara
<lekua> = ? irristaria 'resbaladizo'

Sail honetako Aditzen argumentuetako bat eratorriarekin lotzeko arazoak ere, bistakoak dira: batetik, Aditzak argumentu bakarra hartzen duelako, eta bestetik hitz eratorria Adjektibo kategoriakoa delako. Kasu honetan, gainera, ARI_1-ek soil-soilik Adjektibo kategoriako hitzak eratortzen dituela uste dut:

(22) erorkari 'caedizo'
joanlari 'veloz'
sarkari 'penetrante'

F- NOR-NORI-NORK Aditzak

a. Elizak pobreeei dirua eskatzen die
<egilea> <helb> <gaia> Eliza <egilea> = eskalaria

b. Peruk amari gona gorria erosiko diola ihardetsi dio
<egilea> <helb> <gaia> Peru <egilea> = ihasdeslaria

c. Amonak aspaldiko ipuin zahar bat kontatu digu pro=1pp
<egilea> <gaia> <helb>
Amona <egilea> = kontalaria

Adibide multzo honetan ikusten den bezala, Aditzak hiru argumentu hartzen dituenenan ere, ARI_1-en eratorriak <egile> edo kanpo-argumentuarekin egiten du bat sistematikoki.

Honenbestez, honako ondorioak ebatzi ditut ARI_1-en oinarriko Aditzen tipologia dela eta:

1. Ezer oso-osorik sistematizatzeko aukerarik eskaintzen didaten sailak argumentu bi edo gehiago eskatzen dituzten Aditzenak izango

dira, ARI_2 atzizkiarekin ikusi bezala: NOR-NORK Aditz arruntak eta psikologikoak eta NOR-NORI-NORK saileko Aditzak, alegia.

2. Baina, lotzen zaion Aditzaren argumentuaren nolakotasunari dagokionez, gauzak aldatu egin dira. ARI_1-en gainean eraikitako hitz eratorria, beti eta sistematikoki, oinarrian dagoen Aditzaren kanpo-argumentuari, lotzen zaio, eta paradoxikoa bada ere, ARI_2-ren gainean sortutako hitz eratorria, Aditzaren barne-argumentuari batzen zitzaiola ikusi dugu arestian.

3. Gainerako sailetan, ez sistematikoki baina, bada talde-izaerarik erakusten duen bestelako sailik ere. NOR/ NOR-NORK alternantzia erakusten duten Aditz psikologikoak eta NOR saileko Aditzak, ikusi bezala, Adjektibo kategoriako eratorriak sortzean bat datoz. Horren arrazoietako bat, Aditzak argumentu argi bi ez edukitzea izan litekeela uste dut.

8. AZKEN OHAR BATZUK ATZIZKIAREN INGURUAN

Ez nuke lana amaitu nahi azken ohar zenbaiten berri eman gabe. Lehenik eta behin, ARI_1 eta *–le/-tzaile* atzizkien arteko konparaketa egitea interesgarria izango litzatekeela iruditzen zait. Bien arteko harremana edo alternantzia hein handi batean dialektoen araberakoa izan daitekeelako susmoa dut:

Iparraldean	***Hegoaldean***
bildari	*biltzaile*
bortxari	*bortxatzaile*
irekari	*irekitzaile*
erabilari	*erabiltzaile*
harlari	*hartzaile*

Eta hori ez bada bidea, interesgarria litzateke, halaber, alternantzia horren gakoa kronologikoa den edo ez ikustea. Atzizki bataren eta bestearen indar eta eragin mailak euskal testuen denborazko ibilbidean zehar aztertuz gero, emaitza interesgarriak lortu daitezkeela uste dut.

Era berean, Larramendiren hiztegiaz gerozkoak diren adibideak ere ez ditut ahantzi nahi. Egia da, adibideak asko izanagatik ere, nire lanean ez ditudala sartu, baina beren bitxitasunagatik albo batera uztea erabaki dut. Dena den, azterketa-gai interesgarri eta emankorra izan litezkeelakoan nago, baina irakurlea nire lanaren helburua bestelakoa izan dela ohar dadin nahi nuke. Hitz horiek, kasu askotan, asmatuak direlako susmoa dut: ez soilik eratorria, baita oinarrian leudekeen Izena eta Aditza ere, eta hori, neurri batean, ARI atzizkiaren jokabide morfologikoaren berri zehatza jasotzeko oztopo izan dakidakeela ikusi dut:

(23)	audiakari ‘vanaglorioso’	audia ‘gloria’	audiakatu ‘vanagloriarse’
	emaskindari ‘distribuidor’	emaskida ‘distribución’	emaskindatu ‘distribuir’
	loskaindari ‘prometedor’	loskain ‘promesa’	loskaindu ‘prometer’

Dena den, eta asmatuak diren edo ez direneko auzia alboratuz, uste dut autore honen eta euskalaritzan jardun duten gainerako hiztegigile eta gramatikarien hautapenak ikertzeak eta ezagutzeak atzizkiaren tradizio osoaren ibilbidea nola garatu den argitzeko balioko lukeela.

Honenbestez, bada, amaitutzat jotzen dut nire lana. Ahal izan dudan neurrian, ARI atzizki(ar)en inguruko anabasa antolatzen ahalegindu naiz. Beharbada, aurreko autoreek maixiatutakoari ezten berriak jartzeak anabasa nahaspilatzeko besterik ez du balio izango.

Baina kontua zera da: datuak, adibideak eta hipotesiak maixiatzen ez diren bitartean, nola-halako anabasak bere horretan irauten duela, mutu eta antzu. 'Maixialariarena' egingo duenik baldin bada, ordea, eztenak ezten, datuak, adibideak eta hipotesiak berrikusteko eta berridazteko moduan izango gara, eta jakina, horrexen beharrean da euskalaritza ere.

BIBLIOGRAFIA

· Artiagoitia, X., 1995, "*Garri* atzizkiaren izaera bikoitzaz: zergatik den maitagarria bezain mingarria", ASJU 29.2, 355-405.

· Azkarate, M., 1992, "Larramendiren hitz-eraketa", in J.A. Lakarra arg, *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain: Andoaingo Udala-Euskaltzaindia-Gipuzkoako Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritza, 207-219

· Azkue, R. M. de, 1925, *Morfología Vasca*, Bilbao. [berrargitalpen faksimila: 1969, La Gran Enciclopedia Vasca]

· Mujika, L. M., 1978, *Origen y desarrollo de la sufijación euskeri - ka*, Donostia: Ediciones Vascas

· Oyharçabal, B., 1996, "Hitz eratorriak Materreren *Dotrina Christiana* delakoan (1617)", *Lapurdum* 1, 37-71.